ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2025eko abenduaren 29a, astelehena • 147 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

42/2025 Foru Dekretua, abenduaren 23koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea honako hauek aldatzeari: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arautegia onesten duen 40/2014 Foru Araua, Sozietateen gaineko Zergaren arautegia onesten duen abuztuaren 1eko 41/2014 Foru Araua, abenduaren 23ko 111/2008 Foru Araua eta otsailaren 27ko 3/2024 Foru Araua

Foru dekretu honen xedapenak lau artikulutan antolatzen dira.

1. artikuluan abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretua, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Araudia onesten duena, aldatzen da.

1. artikulu horretan, nabarmentzekoa da Pertsona Fisikoen gaineko Errentaren Arautegian lan etekinei aplikatu beharreko atxikipenen portzentajeen taula berri bat onesten dela.

2. artikuluan abuztuaren 1eko 41/2014 Foru Dekretua, Sozietateen gaineko zergaren Araudia onesten duena, aldatzen da.

3. artikuluan abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretua, finantza kontu, eragiketa eta aktiboen berri eman beharra arautzen duena, aldatzen da.

Azkenik, 4. artikuluan otsailaren 27ko 3/2024 Foru Dekretua aldatzen da (horren bidez onesten da plataforma eragileek ematen duten informazioa modu automatikoan nahitaez trukatzean arreta egokiarekin jarduteko arauak eta prozedurak garatzea, eta aldatzen dira urtarrilaren 25eko 3/2011 Foru Dekretua, azaroaren 3ko 35/2020 Foru Dekretua, abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretua eta uztailaren 8ko 71/2008 Foru Dekretua).

Foru dekretu hau bat dator Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezarritako erregulazio onaren printzipioekin. Premiaren eta eraginkortasunaren printzipioei dagokienez, ezinbesteko araua da honako hauek eguneratzeko eta aldatzeko: batetik, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Araudia eta Sozietateen gaineko zergaren Araudia; bestetik, finantza kontu, eragiketa eta aktiboen berri eman beharra arautzen duen dekretua eta plataforma eragileek ematen duten informazioa modu automatikoan nahitaez trukatzean arreta egokiarekin jarduteko arauak eta prozedurak garatzen dituen dekretua. Proportzionaltasunaren printzipioarekin bat etorriz, adierazitako helburua lortzeko ezinbestekoa den arauketa biltzen du, ez baitago eskubideak gutxiago murrizten dituen aukera arautzailerik. Segurtasun juridikoaren eta eraginkortasunaren printzipioen arabera, koherentea da ordenamendu juridikoarekin, eta baliabide publikoen kudeaketa eraginkorragoa ahalbidetzen du. Gardentasunaren printzipioa ere betetzen du, argi eta garbi identifikatzen baitu bere asmoa, eta, araua egiteko prozeduran zehar, hartzaile izan daitezkeenen parte hartze aktiboa ahalbidetu da, entzunaldiko izapidearen eta jendaurreko informazioaren bidez.

Ikusirik gaiari buruz Zerga Araudiaren Zerbitzuak emandako arau eraginari buruzko txosten laburtua eta Aholku Batzordeak emandakoa, zeinean lege antolamenduari egokitutzat jotzen baita foru dekretua.

Horregatik, bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

1. artikulua. Aldatzea abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretua, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Araudia onesten duena.

Lehenengoa. Aldaketa hauek egiten dira Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Araudia onesten duen abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuan (2025eko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 29. artikuluaren 4. apartatuaren lehen eta hirugarren paragrafoak aldatzen dira eta honela geratzen dira:

"4. Zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztua hautatu duten zergadunek araudi honen 32, 33., 34. eta 34 bis artikuluetan ezarritako jardueretako bat egiten badute, Zergaren Foru Arauaren 28. artikuluaren 2. apartatuan aipatutako gastu kengarriak zenbatzeko erregela bereziak aplika ditzakete. Horretarako, zergadunek erregela berezi hauek aplikatzea hautatu behar dute zerga honen zergaldi jakin bateko autolikidazioa aurkeztean, eta horretarako aski dute jardueraren etekin garbia jarduerarako ezarritako erregela bereziak aplikatuz zehaztea. Geroago hautapena aldatu ahal izango da, hain zuzen ere Zerga Administrazioak jarduketaren bat egin arte."

Zergadun batek hainbat jarduera egiten baditu eta bakoitzaren gastuak zehazteko erregela bereziak ezarri badira araudiaren 32, 33., 34. eta 34 bis artikuluetan, jarduera horietako baten, batzuen edo guztien erregela bereziak aplikatzea hauta dezake."

Bi. 33. artikuluaren 1. apartatuaren c) letra aldatzen da eta honela geratzen da:

"c) Aurreko b) letran xedatu denaren ondoriozko kopuruari ehuneko 70 kenduko zaio kontzeptu hauengatik: amortizazioa, narriadura galerak, errentamendu gastuak, Zergaren Foru Arauaren 27. artikuluko 5. erregelako Bi apartatuaren a) letran eta Hiru apartatuaren a) letran aipatzen diren lagapena edo balio galera, eta justifikatzen zailak diren gastuak."

Hiru. 34. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

"34. artikulua. Salgaiak errepidez garraiatzeko jardueren etekin garbia zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztuan zehazteko erregela bereziak.

Zergaren Foru Arauaren 28. artikuluaren 2. apartatuan xedatutakoa garatuz, salgaiak errepidez garraiatzeko jardueraren etekin garbia zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztuan zehazteko, 28. artikuluaren 1. apartatuaren b) letran aipatzen den portzentajea ehuneko 70 izango da.

Artikulu honetan xedatutakoetarako, salgaiak errepidez garraiatzeko jarduera izango dira Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifetako 722 epigrafean zerrendatutakoak, uztailaren 23ko 573/1991 Foru Dekretu Arauemaileak onartuak."

Lau. 34 bis artikulua gehitzen da; hona testua:

"34 bis artikulua. Jarduera artistikoen etekin garbia zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztuan zehazteko erregela bereziak.

Zergaren Foru Arauaren 28. artikuluaren 2. apartatuan xedatzen dena garatuz, jarduera artistikoen etekin garbia zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztuan zehazteko, 28. artikuluaren 1. apartatuaren b) letran aipatzen den portzentajea ehuneko 40 izango da.

Horretarako, artistatzat hartzen dira jarduera ekonomiko hauetan aritzen diren zergadunak: sorkuntza plastikoa eta bisuala (pintura, marrazketa, eskultura, ilustrazioa, zeramika, grabatua, komisariotza, artelanen zaharberritzea edo ikus-entzunezkoaren sorkuntza-zuzendaritzak fikzioan, animazioan, dokumentalean edo hibridoan); idazketa bidezko sorkuntza (literaturakoa,

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

ikus-entzunezko edo komikirako gidoia, antzerki-testuak, konposizioa eta letra edo haien itzulpena); zuzeneko arteen sorkuntza (koreografikoa edo performatiboa, interpretazio musikala, bertsolaritza, kantua, dantza, zirku-artea edo akrobatikoak, txotxongiloak, magia, umorea, figurazioa edo barietateak, eta ikuskizunen zuzendaritza artistikoak); bestelako kultur sorkuntzak eta arte-jarduerak egiten dituztenak, baldin eta artista interpretatzaile gisa aintzatetsita badaude 1996ko apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onarturiko Jabetza Intelektualari buruzko Legearen testu bateginaren bigarren liburuaren I. tituluan, edo artista, artista interpretatzaile edo interpretatzaile gisa arte eszenikoen, ikus-entzunezkoen jarduera eta musika jardueretan aplikagarri diren hitzarmen kolektiboen arabera.

Era berean, kontzeptu horretan sartuko dira jarduera artistiko hori garatzeko beharrezkoak diren laguntza jarduera teknikoak, hau da, jarduera artistikoarekin zuzenean lotuta dauden eta jarduera hori egiteko ezinbestekoak diren zerbitzuak, esaterako, ekitaldiaren prestaketa, muntaketa eta laguntza teknikoa, jarduera artistikoa osorik gauzatzeko beharrezkoa den beste edozein lan (joskintza, ile-apainketa eta makillajea, besteak beste) eta bestelako jarduera osagarriak, betiere zergadunak jarduera horiek zuzenean eta esparru artistikoan soilik egiten baditu.

Jarduera artistikoak, teknikoak eta laguntzakoak, aurreko apartatuetan azaldu den bezala, komunikazio publikoaren edo zabalkundearen bidez egin ahal izango dira, bitarteko edo euskarri teknikoak (ukigarriak edo ukiezinak), ekoizpen fonografikoa edo ikus-entzunezkoak erabiliz honako hauetan: antzerkia, zinema, irrati-difusioa, telebista, Internet (streaming bidez barne), kirol instalazioak, plazak, zirkuak, jaialdiak, tablaoak, dantzalekuak, diskotekak, eta, oro har, ikuskizun publikoak, grabazioak, produkzioak edo saio artistikoak edo erakustaldi erakoak egiteko erabiltzen den edozein toki, eta, azkenik, esparru pribatuko emanaldi artistikoak.

Inola ere ez dira onartuko X gisa kalifikatutako sorkuntza lanak, pertsonen askatasunaren eta eskubideen aurkakoak edo nahita diskriminatzen dutenak egiten dituzten zergadunak."

Bost. 68. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

"68. artikulua. Autolikidazioa egin beharretik salbuestea.

1. Errentak honako iturri hauetatik soilik lortzen dituzten zergadunek ez dute zertan aurkeztu pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren autolikidaziorik:

a) Lanaren etekin gordinak; muga: 20.000 euro urtean, banakako tributazioan. Baterako tributazioan, muga hori horrelako etekinak izan dituen zergadun bakoitzari aplikatuko zaio.

b) Kapitalaren etekin gordinak eta ondare irabaziak (salbuetsiak barne, kasu bietan), urteko guztirako batura 1.600 euro baino gehiago ez bada. Letra honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko talde inbertsioko erakundeen akzio edo partaidetzen eskualdaketetan edo itzulketetan sortutako ondare irabaziei, baldin eta araudi honen 94. artikuluaren 2. apartatuan xedatutakoaren arabera egindako atxikipena ezin bada zehaztu zerga oinarrian sartu beharreko zenbatekoarengatik.

2. Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, kontura ordaindutako diru kopuruen itzulketa lortzeko autolikidazioa aurkeztuko da."

Sei. 69. artikulua edukirik gabe uzten da.

Bigarrena. Sozietatearen gaineko zergaren Araudia onesten duen abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuaren 83. artikuluaren 1. apartatuari c) letra gehitzen zaio (2026ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak). Hona:

"c) Ikastaroak, hitzaldiak, solasaldiak, mintegiak eta antzekoak emanik lortzen diren lanaren etekinen gaineko atxikipenen eta konturako sarreren portzentajea (Zergaren Foru Arauaren 18.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

artikuluaren l) letra), bai eta literatura lanak, lan artistikoak eta zientifikoak eginda lortzen diren lanaren etekinen gainekoak ere (Zergaren Foru Arauaren 18. artikuluaren m) letra), baldin eta ustiapenerako eskubidea lagatzen bada, ehuneko 15 izango da.

Aurrekoa gorabehera, Zergaren Foru Arauaren 18. artikuluaren m) letran aipatzen diren literatura lanak, lan artistikoak eta zientifikoak eginda lortzen diren lanaren etekinei ehuneko 7ko atxikipenak eta konturako sarrerak aplikatuko zaizkie, baldin eta jarduera horien etekin osoen bolumena, kasuan kasuko ekitaldiaren aurreko ekitaldikoa, 15.000 euro baino gutxiago bada eta zergadunak ekitaldi horretan jarduera ekonomikoen eta lanaren bidez lortutako etekin osoen baturaren ehuneko 75 baino gehiago bada. Atxikipen tasa hori aplikatzeko, zergadunek inguruabar hori gertatu dela jakinarazi behar diote etekinak ordaintzen dituen pertsonari edo erakundeari, eta ordaintzaileak komunikazioa gorde beharko du, behar bezala sinatuta."

Hirugarrena. Aldaketa hauek egiten dira Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Araudia onesten duen abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuan:

Bat. I. tituluaren izenburua aldatzen da, 4. artikuluari edukia gehitzen zaio eta 5. eta 6. artikuluak edukirik gabe gelditzen dira. Horrenbestez, I. titulua honela gelditzen da:

"I. TITULUA

ARAUBIDE BEREZIAK

I. KAPITULUA

LEKUALDATUTAKO LANGILEEN ARAUBIDE BEREZIA.

1. artikulua. Lurraldera lekualdatutako langileen araubide bereziaren edukia.

1. Zergaren Foru Arauaren 56 bis artikuluaren 1. apartatuaren a) letran xedatzen denaren ondorioetarako, bereziki kalifikatutako lantzat hartuko dira Gizarte Segurantzako Araubide Orokorreko 1. kotizazio taldean dagoen kategoria profesionaleko langileek egiten dituztenak, berariazko indarreko araudian xedatzen denarekin bat etorriz. Lan kalifikatu horiek hurrengo apartatuan aipatzen diren jarduerekin zuzenean eta nagusiki lotuta egon beharko dute.

Zergaren Foru Arauaren 56 bis artikuluaren 3. eta 4. apartatuetan aipatzen diren kasuetan, apartatu honetan ezartzen den baldintza betetzat joko da zergadunak egiten dituen lanak Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorreko 1. kotizazio taldeko lanbide kategorietako lanen baliokideak direnean.

2. Kapitulu honetan aipatzen den araubide berezia aplikatu ahal izateko, zergadunak honako jardueretako batean edo batzuetan eman behar du bere lanaldiaren % 85 gutxienez:

a) Ikerketa eta garapena.

b) Jarduera zientifikoak eta teknikoak.

c) Finantzen arloko jarduerak.

d) Antolaketa jarduerak.

e) Gerentzia jarduerak.

f) Kontrol ekonomiko eta finantzariorako jarduerak.

g) Merkataritzako jarduerak.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

3. Ikerketa eta garapen jardueratzat, jarduera zientifiko, tekniko edo finantzariotzat hartuko dira egin ondoren Zergaren Foru Arauaren 56 bis artikuluan ezartzen den araubide berezia aplikatzeko eskubidea ematen dutenak. Hauek dira:

a) Abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergari buruzkoak, 62. artikuluaren 2. apartatuan xedatzen duenera egokitzen diren ikerketa eta garapen jarduerak.

b) Jarduera zientifiko edo tekniko hauek:

1. Abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergari buruzkoak, 63. artikuluaren 2. apartatuan xedatzen duenera egokitzen direnak.

2. Garapen iraunkorraren eta ingurumenaren babes eta hobekuntzaren esparruaren barruan daudenak, helburutzat Sozietateen gaineko zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 65. artikuluaren 2. apartatuaren b) letraren a´) - e´) bitarteko letretan adierazitakoetako bat badute.

3. Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 2.80).a) artikuluan ezarritako baldintzak (atal horretan adierazitako produktu, zerbitzu eta prozesuen garapenarekin zerikusia dutenak) betetzeagatik "enpresa berritzailetzat" hartzen diren erakundeentzat egiten direnak.

4. Sozietateen gaineko zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 53. artikuluaren 2. apartatuaren c) letran aipatzen den helburua (enpresa sustatzea eta ekoizpen jarduera sendotzea) betetzen duten erakundeentzat egiten direnak.

Bereziki, helburu hori betetzen duten enpresatzat hartuko dira enpresa proiektu garrantzitsuak egiten dituztenak, jarduera, produktu edo merkatu berriak garatzea, dauden batzuk handitzea edo finkatzea edo enplegu egonkorrak ekartzen badituzte.

Ondorio horietarako, langileak lan egiten duen erakundeak frogatu beharko du bete duela bere jardueraren ondorioz enpresak sustatzeko eta ekoizpen jarduera indartzeko helburua.

5. Enpresa proiektu berri bat garatzeko hasierako etapan edo garapen fasean dauden erakundeentzat egiten direnak, baldin eta, Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauaren 13. artikuluan xedatzen denaren arabera, hazteko ahalmen handia duten mikroenpresak eta enpresa txiki eta ertainak badira.

c) Finantza arloko jarduerak: finantza erakundeentzat emandako lanak edo erakunde guztientzat emandako finantza arloko lanak barne hartuko dira, betiere bi kasuetan, erakunde horiek, jasangarritasunari edo finantzarioa ez den kudeaketa egoerari buruzko txosten bat argitaratu badute, eta txosten hori aditu independente batek egiaztatu badu.

Informazio hori ematen dutenean, erakundeek esparru nazionaletan, Europar Batasuneko esparruetan edo nazioarteko esparruetan oinarritu beharko dute, hala nola Nazio Batuen Mundu Ituna; Nazio Batuen esparruak, «babesteko, errespetatzeko eta zuzentzeko», abian jartzen dituen enpresa eta giza eskubideei buruzko printzipio gidariak; enpresa multinazionaletarako Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundearen (ELGA) zuzentarau lerroak; Normalizazioaren Nazioarteko Erakundearen 26000 ISO araua; enpresa multinazionalei eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen gizarte politikari buruzko hiru alderdiko aitorpena; GRIren (GRI Sustainability Reporting Standards) Iraunkortasun Txostenak Aurkezteko Munduko Ekimena, edo ezagunak diren nazioarteko beste esparru batzuk.

I. kapitulu honetan aipatzen den araubide berezia aplikatzeko, beharrezkoa da aipatutako jasangarritasun txostena edo kudeaketa ez-finantzarioaren egoera argitaratzea zergadunak araubide berezi hori hautatzen duen zergaldi guztietan.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

4. Zergaren Foru Arauaren 56 bis artikuluaren 2. apartatuaren b) letran xedatzen denaren ondorioetarako, honako hauek izango dira lekualdatzearen ondoriozko gastu kengarriak:

a) Zergaduna eta bere familia unitateko kideak Araban finkatzeko beharrezkoak diren bidaia eta etxe aldaketako garraio gastuak. Gastu horietan sartuko dira jatorrizko herrialdera egiten diren bidaiek eragiten dituzten gastuak, honako muga honekin: bi bidaia urtean. Hori dela eta, zenbateko kengarria Arabatik jatorrizko herrialdera joateko erabiltzen den garraiobidearen prezioa izango da.

b) Zergadunaren ondorengoak, Zergaren Foru Arauaren 79. artikuluan ezartzen den kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen diotenak, Araban eskolatzeak eragiten dituen gastuak.

c) Zergadunak edo bere familia unitateko beste kideren batek egindako euskara edo gaztelania ikastaroen gastuak.

d) Zergadunak Araban daukan ohiko etxebizitza alokatzeak eragiten dituen gastuak, eta harekin lotutako zerbitzuak edo hornidurak kontratatzeko gastuak.

2. artikulua. Lekualdatutako langileei araubide berezia aplikatzeko eskubidea egiaztatzea.

1. Kapitulu honetan ezartzen den araubide berezia aplikatzea hautatzen den autolikidazioarekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Espainiako enplegatzaile batekin (pertsona zein erakundea) lan harremana, arrunta edo berezia, edo estatutupeko harremana hasten denean, enplegatzaileak emandako ziurtagiria, honako hau adierazten duena: zergadunarekin lan harremana edo estatutupekoa duela; Zergaren Foru Arauaren 56 bis artikuluan ezartzen diren baldintzak betetzen direla; jardueraren hasiera eguna, Espainiako Gizarte Segurantzako altan ageri dena; lantokia non dagoen eta haren helbidea; lan kontratuaren iraupena; lana benetan Espainian egingo dela.

b) Lekualdaketa pertsona edo erakunde enplegatzaileak agintzen duenean zerbitzuak egiteko egoitza Espainian daukan enpresa edo erakunde bati edo Espainiako establezimendu iraunkor bati, horrek emandako ziurtagiria (lekualdatzeko aginduaren gutunaren kopia erantsita), honako hau adierazten duena: zergadunak zerbitzua egin duela eta zerbitzu lanetan Zergaren Foru Arauaren 56 bis artikuluan ezartzen diren baldintzak bete dituela; jardueraren hasiera eguna, Espainiako Gizarte Segurantzako altan edo jatorrizko herrialdeko gizarte segurantzaren legeria mantentzeko behar den dokumentazioan ageri dena; lantokia non dagoen eta haren helbidea; lekualdatzeko aginduaren iraupena; lana benetan Espainian egingo dela.

Kasu horretan, jatorrizko Gizarte Segurantzaren legeriari eusten zaionean, egiaztatu beharko da langilearen lanbide kategoria Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorreko 1. kotizazio taldean daudenen baliokidea dela, araudi honen 1. artikuluaren 1. apartatuan agintzen den bezala.

c) Zergaren Foru Arauaren 56 bis artikuluaren 3. apartatuaren azken paragrafoan eta 4. apartatuan aipatzen diren zergadunek araubide berezia aplikatzeko baldintzak betetzen dituztelako erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute.

2. Artikulu honetan xedatzen denaren ondorioetarako, zergaduna Espainiako lurraldean noiz sartu den adierazi beharko da beti.

3. Aurreko 1. apartatuan ezartzen dena gorabehera, zergadunak lekualdatutako langileen araubide berezi hau aplikatzeko eskubidea daukala egiaztatu ahal izango du zuzenbidean onartutako beste edozein frogabide erabiliz.

3. artikulua. Araubide berezia hautatzea.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

2022ko urtarrilaren 1etik aurrera egoitza Espainiako lurraldera aldatzen duten zergadunek Zergaren Foru Arauaren 56 bis artikuluan aipatzen den lekualdatutako langileen araubide berezia aplikatu ahal izango dute 1. apartatuan aipatzen diren zergaldietako edozeinetan.

Aurreko paragrafoan xedatzen dena gorabehera, egoitza Espainiako lurraldera aldatzen duten urtean araubide berezia aplikatzea hautatzen ez duten zergadunek muga bat edukiko dute ondoko urteetan aplikatzeko: araubide berezia aplikatu ahal izatea eragiten duen egoitza aldaketa (Espainiako lurraldera aldatzea) gertatu ondoko hamar zergaldietara iristeko falta diren zergaldietan baino ezin izango dute aplikatu.

Artikulu honen lehen paragrafoan eta Zergaren Foru Arauaren 105. artikuluan xedatzen denaren ondorioetarako, zergadunak lekualdatutako araubide berezia aplikatzea hautatu beharko du aplikatu nahi duen zergaldi bakoitzeko autolikidazioa aurkezten duenean. Nolanahi ere, araudi honen 74. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.

II. KAPITULUA

ORDAINSARI BEREZIAK EKINTZAILETZAREN ESPARRUAN

4. artikulua. Ordainsari bereziak ekintzailetzaren esparruan.

Zergaren Foru Arauaren 56 quater artikuluaren 3. apartatuan ezartzen den partaidetza ehunekoaren baldintza ez da joko ez betetzat partaidetza ehunekoan gertatu den murrizketaren eragilea denean ekintzaileak ez hartzea parte erakundearen jardueraren gorakadaren arabera hurrengo finantzaketa saioetan egiten diren kapital gehikuntzetan, baldin eta erakundeak bere esku mantentzen baditu gutxienez kapitalaren ehuneko 10eko partaidetza adierazten zuten akzio edo partaidetza guztiak.”

Bi. 11 bis artikulua gehitzen da; hona testua:

“11 bis artikulua. Salbuespena: 65 urtetik gorako zergadunek bizi aseguruen kontratuetatik kapital edo erreskate gisa jasotako biziraupen prestazioetatik datozen etekinak, haien aldeko biziarteko errenta aseguratu bat eratzeko erabiltzen badira.

1. Zergaren Foru Arauaren 9. artikuluaren 43. apartatuan xedatzen denaren ondorioetarako, salbuetsita egongo dira 65 urtetik gorako zergadunek bizi aseguruen kontratuetatik kapital edo erreskate gisa jasotako biziraupen prestazioetatik datozen etekinak, baldin eta lortutako zenbateko osoa haien aldeko biziarteko errenta aseguratu bat eratzeko erabiltzen badute, artikulu honetan ezartzen den bezala.

2. Biziarteko errenta aurreko apartatuan aipatzen den etekina lortu denetik sei hilabete igaro baino lehen eratu beharko da.

Hala ere, kapital higigarriaren etekinari atxikipena aplikatzen bazaio eta diru kopurua, atxikipenaren zenbatekoa kenduta, osorik erabiltzen bada biziarteko errenta eratzeko aurrean aipatutako sei hilabeteko epealdiaren barruan, atxikipenaren zenbatekoa biziarteko errenta eratzeko erabiltzeko epealdia etekina lortzen den ekitaldiaren ondoko ekitaldia amaitu arte luzatuko da.

3. Aurreko 1. apartatuan aipatzen den salbuespena aplikatzeko, honako baldintza hauek ere bete beharko dira:

a) Biziarteko errentaren kontratua zergadunak (onuraduna izango da) eta erakunde aseguratzaile batek sinatu beharko dute. Bizi arteko errenta kontratuetan errenta eratu ondoren kontratatzailea

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

hilez gero zer egin behar den ezar daiteke: errenta berreskuratzeko mekanismoak, prestazioaldiak edo kontraseguru formulak.

b) Biziarteko errentaren aldizkokatasuna urtebetekoa edo laburragoa izan beharko da, gehienez ere eratzen denetik urtebetera hasiko da jasotzen, eta errenten urteko zenbatekoa ezin izango da izan aurreko urtekoa baino ehuneko 5 gutxiago.

c) Salbuespen hau aplikatzeko, zergadunak aseguru erakundeari jakinarazi beharko dio kontratatzen den biziarteko errenta biziraupen prestazioen etekinen zenbatekoaren berrinbertsioa dela, bizitza aseguruen kontratuetatik eratorritako kapital edo erreskate gisa.

4. Biziarteko errentak eratzeko berrinbertitzean salbuespena aplikatzeko eskubidea emango duen gehieneko zenbatekoa 240.000 eurokoa izango da guztira. Muga hori batera aplikatuko da zergadunak artikulu honetako salbuespena eta Zergaren Foru Arauaren 42. artikuluaren f) letrakoa aplikatzen dituenean.

Berrinbertitutako zenbatekoa guztirako jasotakoa baino gutxiago bada, berrinbertitutako zenbatekoari dagokion etekinen zati proportzionala soilik geratuko da zergapetu gabe.

Baldin eta etekina biziarteko errenta batean berrinbertitzearen ondorioz 240.000 euroko zenbatekoa gainditzen bada, aurreko berrinbertsioak zenbatuta, 240.000 eurotik aurreko berrinbertsioen zenbatekoa kenduta geratzen den kopurua soilik hartuko da berrinbertsiotzat.

Baldin eta, artikulu honetan xedatzen denaren arabera, berrinbertsioa ez bada egiten etekina lortzen den urtean, zergadunak etekina lortzen duen zergaldiko autolikidazioan adierazi beharko du berrinbertsioa egiteko asmoa daukala ezarritako epealdiaren barruan eta finkatutako moduan. Administrazioak hori egiteko aukera txertatu beharko du zergaren autolikidaziorako ereduetan eta programetan.

5. Artikulu honetan ezarritako baldintzetako bat betetzen ez bada edo eratutako biziarteko errentatik eratorritako eskubide ekonomikoak (denak edo batzuk) aurretik jasotzen badira, etekinari bidezko karga aplikatuko zaio.

Hori gertatzen denean, zergadunak salbuetsi gabeko etekina lortu den urteari egotziko dio, baldintza betetzeari utzi zaion unetik zergaldiko autolikidazioa aurkezteko arauzko epealdia amaitu arteko berandutza interesak gehituta."

Hiru. 12. artikuluaren izenburua eta 1. apartatuaren lehenengo paragrafoa aldatzen dira eta honela geratzen dira:

"12. artikulua. Sektore publikoaren laguntza publikoen salbuespena.

1. Zergaren Foru Arauak 9. artikuluaren 27. zenbakian ezartzen duenari dagokionez, kargatik salbuetsita daude sektore publikoak jarraian azalduko diren arautegien eta programen edo laguntza planen bidez (edo beren ordezkoen bidez) ematen dituen laguntza publikoak:"

Lau. 12. artikuluaren 1. apartatuaren a) letra aldatzen da eta honela geratzen da:

"a) 14/2022 Legea, abenduaren 22koa, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemarena."

Bost. 12. artikuluaren 1. apartatuaren g) letraren bigarren paragrafoa aldatzen da eta honela idatzita geratzen da:

"Gainera, salbuetsita egongo dira agindu honetan arautzen diren etxebizitza alokatzeko laguntza publikoak: Agindua, 2022ko apirilaren 26koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira Gaztelagun programaren etxebizitza-alokairurako laguntzak."

Sei. 12. artikuluaren 1. apartatuaren k) letra aldatzen da eta honela geratzen da:

"k) Nekazari gazteek enpresak sortzeko laguntzak, apirilaren 12ko 30/2016 Foru Dekretuan arautzen direnak (horren bidez nekazari gazteek enpresak sortzeko laguntzak arautzen dituzten oinarriak onesten dira, EAEko Landa Garapenerako Plana 2015-2020 egitasmoaren baitan, 1305/2013 Araudiak eta horren babesean Eusko Jaurlaritzak onartuko duen esparru dekretuan ezarritako mugen barruan, bai eta laguntza lerro horren 2016. urterako deialdia ere), eta, halaber, nekazari gazteak ezartzera bideratutako laguntzak, ekainaren 6ko 28/2023 Foru Dekretuan arautzen direnak (horren bidez 2023-2027 aldirako Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren esparruan nekazari gazteak ezartzera bideratutako laguntzen oinarri arautzaileak onesten dira, bai eta 2023ko laguntza lerro horren deialdia ere)."

Zazpi. 12. artikuluaren 1. apartatuaren s) letra aldatzen da eta honela geratzen da:

"s) Sektore publikoak eskainitako beste laguntza publiko batzuk, baldin eta haien helburua ondasunak edo instalazioak eraberritzea bada eta aurreko q) eta r) letretan adierazitako helburu berei erantzuten badiete."

Zortzi. 12. artikuluaren 1. apartatuaren x) letra aldatzen da eta honela geratzen da:

"x) HABEren zuzendariaren ebazpen honetan (edo xede berarekin ordezten duten ebazpenetan) ezartzen diren laguntzak: Ebazpena, 2021eko uztailaren 7koa, HABEko zuzendariarena, 2020-2021 ikasturtean HABEren komunikagaitasun mailak euskaltegiko edo autoikaskuntzarako zentro homologatuetako ebaluazioan mailaren atalasea gaindituz, edota egiaztatzegintzaren eremuko deialdietan euskara mailak edo baliokideak gainditu dituzten ikasleei dirulaguntzak emateko prozedura eta baldintzak, eta dagokion deialdia egiten dituena.

Halaber, salbuetsita egongo dira sektore publikoko beste erakunde batzuek xede bererako ematen dituzten laguntzak, aurreko paragrafoan aipatzen den ebazpenean ezartzen diren baldin berak edukiz gero."

Bederatzi. 12. artikuluaren 1. apartatuari y) letra gehitzen zaio; hona:

"y) Gasteizko Udalaren "autonomoentzako txekea" izeneko programa, 2023koa, Gasteizko Gobernu Batzarrak 2023ko irailaren 8an hartutako erabaki baten bidez ezarri zena (bertan deialdia eta oinarriak zehaztu ziren)."

Hamar. 12. artikuluaren 1. apartatuari z) letra gehitzen zaio; hona:

"z) 48/2024 Dekretua, apirilaren 16koa, Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako biktimen seme-alaba umezurtzentzako dirulaguntza arautzen duena."

Hamaika. 12. artikuluaren 1. apartatuari aa) letra gehitzen zaio; hona:

"aa) 191/2023 Dekretua, abenduaren 26koa, gazteen emantzipaziorako Emantzipa Programaren laguntzak arautzen dituena."

Hamabi. 22. artikuluaren 3. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

"3. Berrinbertsioa egiten ez bada Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauaren 36. artikuluan ezarritako epealdiaren barruan, zergadunak integratu gabeko errenta zatia lortu den zergaldira egotzi behar du, zenbatekoaren ehuneko 15 gehituta."

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Hamahiru. 46 bis artikuluaren 4. apartatuaren lehen paragrafoa aldatzen da eta honela geratzen da:

"4. Biziarteko errentak eratzeko berrinbertitzean salbuespena aplikatzeko eskubidea emango duen gehieneko zenbatekoa 240.000 eurokoa izango da guztira. Muga hori batera aplikatuko da zergadunak artikulu honetako salbuespena eta Zergaren Foru Arauaren 9. artikuluaren 43. zenbakikoa aplikatzen dituenean."

Hamalau. Artikulu berri bat gehitzen da, 46 ter; hona:

"46 ter artikulua. Salbuespena mikroenpresa, enpresa txiki edo enpresa ertain sortu berrietan, berritzaileetan edo zilarrezko ekonomiari lotuta daudenetan inbertitzeagatik aplikatu daitekeen kenkariarekin lotutako akzioak eta partaidetzak eskualdatzean. Ikusi oharrak.

1. Baldin eta Zergaren Foru Arauaren 42. artikuluaren g) letraren hirugarren paragrafoan arautzen den berrinbertsiorako epealdian zergadunak erabakitzen badu eskualdaketaren zenbatekoa (osorik edo zati bat) ez berrinbertitzea, integratu gabeko errenta zatiaren ehuneko 50 (edo eskualdaketaren zenbatekotik berrinbertitu gabe uztea erabaki den zenbatekoari dagokion kopuru proportzionala) etekina lortu den zergaldira egotzi beharko du, zenbatekoaren ehuneko 15 gehituta.

Aurreko paragrafoan ezarritakoarekin bat etorriz, batera sartuko dira zerga oinarrian integratu beharreko errentari dagokion kuota osoaren zatia, haren zenbatekoari gehitutako ehuneko 15 hori eta erabakia hartzen den zergaldiko kuota.

Gainera, baldin eta berrinbertsioa ez bada egiten Zergaren Foru Arauaren 42. artikuluaren g) letraren hirugarren paragrafoan arautzen den epealdian, zergadunak integratu gabeko errenta zatiaren ehuneko 50 (edo eskualdaketaren zenbatekotik berrinbertitu gabe uztea erabaki den zenbatekoari dagokion kopuru proportzionala) etekina lortu den zergaldira egotzi beharko du, zenbatekoaren ehuneko 15 gehituta.

Aurreko paragrafoan adierazitakoaren arabera zerga oinarrian sartu behar den errentari dagokion kuota osoaren zatia berrinbertsioa egiteko epealdia amaitzen den zergaldiko kuotarekin batera ordaindu behar da, ehuneko 15 gehituta.

2. Zergaren Foru Arauaren 42. artikuluaren g) letran ezartzen denarekin bat etorriz, inguruabar bereziengatik beharrezkoa izanez gero, Zerga Administrazioak berrinbertsio plan bereziak onartu ahal izango ditu ehuneko 100eko salbuespena aplikatzeko entitateetako akzioak edo partaidetzak eskualdatzean agerian gelditzen diren ondare irabaziei, hain zuzen ere horiek eskuratzeagatik zergadunak foru arau honen 90. artikuluan ezarritako kenkaria aplika dezakeenean, betiere ondorio horietarako 90. artikuluaren 3. eta 7. apartatuetan xedatutakoa kontuan hartu gabe.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren inguruabar bereziak gertatzen direla ulertuko da frogatzen denean ezen, bere ezaugarri ekonomikoengatik, inbertsioa nahitaez egin behar dela bi urtetik gorako epealdian, oro har ezarritako eskualdaketaren datatik aurrera, edo, gerora sortutako eta behar bezala arrazoitutako inguruabarrengatik, berrinbertsiorako prozesua ezin denean osatu aipatu epealdian.

3. Aurreko apartatuan aipatzen diren inguruabarrak gertatuz gero, zergadunek Zerga Administrazioari eskatu ahal izango diote berrinbertsioko plan bereziak onesteko.

4. Berrinbertsioko plan berezia honako epealdi hauetan aurkeztu behar da (kasuan kasukoa):

a) Frogatzen denean ezaugarri ekonomikoak direla eta inbertsioa nahitaez egin behar dela bi urtetik gorako epealdian oro har ezarritako eskualdaketaren datatik aurrera:

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

- Salbuespena eskatzen den ondare irabazia sortu duen eskualdaketa egin denetik sei hilabete igaro baino lehen.

- Eskualdaketa egiteko asmoa dagoen egunaren aurreko sei hiletan.

Azken kasuan, eskualdaketa berrinbertsioko plan berezia onesten denetik sei hilabete pasatu baino lehen egin behar da.

b) Gerora gertatutako inguruabarrak direla eta (behar bezala arrazoitu behar dira) berrinbertsiorako prozesua ezin bada osatu eskualdaketa egin denetik bi urte pasatu baino lehen, epealdi hori amaitu baino lehen.

5. Berrinbertsioko plan bereziaren eskabidean datu hauek agertu behar dira:

a) Eskualdatutako edo eskualdatuko diren akzioen edo partaidetzen ezaugarriak; gainera, adierazi behar da Zergaren Foru Arauaren 42. artikuluaren g) letran aipatzen den salbuespena aplikatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen direla.

b) Eskualdaketaren zenbatekoa, benetakoa edo aurreikusia.

c) Berrinbertsioa egingo den akzioen edo partaidetzen ezaugarriak; gainera, adierazi behar da Zergaren Foru Arauaren 90. artikuluan aipatzen den kenkaria aplikatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen direla, ondorio horietarako artikulu horren 3. eta 7. apartatuetan xedatzen dena kontuan hartu gabe.

d) Berrinbertsiorako aldi planaren deskribapena.

e) Berrinbertsioko plan berezia justifikatzen duten inguruabarren azalpena.

f) Gerora gertatutako inguruabarrak direla eta (behar bezala arrazoitu behar dira) berrinbertsiorako prozesua ezin bada osatu eskualdaketa egin denetik bi urte pasatu baino lehen, zenbat berrinbertitu den zehaztu behar da.

6. Zerga Administrazioak behar dituen datu, txosten, aurrekari eta frogagiri guztiak eskatu ahal izango dizkio zergadunari. Entzunaldiaren izapidea baino lehen, zergadunak prozeduran zehar noiznahi aurkeztu ahal izango ditu nahi dituen alegazio, agiri eta frogari guztiak.

7. Prozedura bideratu ondoren, eta ebazpen proposamena idatzi aurretik, espedientea zergadunaren eskura jarriko da, eta honek hamabost eguneko epealdia edukiko du nahi dituen alegazioak, agiriak eta frogagiriak aurkezteko.

Zergadunak azaldutako egitateak, alegazioak eta frogak bakarrik agertzen badira prozeduran eta horiek baino ez badira kontuan hartzen ebazpenerako, ez dago entzunaldiaren izapidea egin beharrik.

8. Prozedura azkentzen duen ebazpenean arrazoiak azaldu behar dira. Horren bidez hauetako bat egingo da:

a) Zergadunak hasieran egindako plana onetsi.

b) Prozeduran zehar zergadunak egindako plan alternatiboa onetsi.

c) Zergadunak egindako plana ezetsi.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

9. Zerga Administrazioak eskabidea aurkezten denetik edo eskatutako informazio gehigarria jasotzen denetik sei hilabete igaro aurretik emango du ebazpena. Epealdi horretan berariazko ebazpena jakinarazi ezean, zergadunaren eskabidea ezetsitzat jo beharko da.

10. Baldin eta Zerga Administrazioak onetsitako plan berezian ezarritako berrinbertsiorako epealdian zergadunak erabakitzen badu eskualdaketaren zenbatekoa (osorik edo zati bat) ez berrinbertitzea, integratu gabeko errenta zatiaren ehuneko 50 (edo eskualdaketaren zenbatekotik berrinbertitu gabe uztea erabaki den zenbatekoari dagokion kopuru proportzionala) etekina lortu den zergaldira egotzi beharko du, zenbatekoaren ehuneko 15 gehituta.

Aurreko paragrafoan ezarritakoarekin bat etorriz, batera sartuko dira zerga oinarrian integratu beharreko errentari dagokion kuota osoaren zatia, zenbatekoari gehitutako ehuneko 15 hori eta erabakia hartzen den zergaldiko kuota.

Gainera, baldin eta berrinbertsioa ez bada egiten onetsitako plan berezian ezarritako epealdian, zergadunak integratu gabeko errenta zatiaren ehuneko 50 (edo eskualdaketaren zenbatekotik berrinbertitu gabe uztea erabaki den zenbatekoari dagokion kopuru proportzionala) etekina lortu den zergaldira egotzi beharko du, zenbatekoaren ehuneko 15 gehituta.

Aurreko paragrafoan adierazitakoaren arabera zerga oinarrian sartu behar den errentari dagokion kuota osoaren zatia berrinbertsioa egiteko epealdia amaitzen den zergaldiko kuotarekin batera ordaindu behar da, ehuneko 15 gehituta."

Hamabost. Artikulu berri bat gehitzen da, 54 bis; hona:

"54 bis artikulua. Pertsonen garraio kolektiboaren zerbitzu publikoa ordaintzeko zeharkako formulak Ikusi oharrak.

1. Zergaren Foru Arauaren 17. artikuluaren 2. apartatuaren h) letran ezartzen denaren ondorioetarako, pertsonen garraio kolektiboaren zerbitzu publikoa egiten duten erakundeei ordaintzeko zeharkako formula da langileei ematea ordainketak egiteko txartelak edo bestelako baliabide elektronikoak, honako baldintza hauek betez gero:

1. Pertsonen garraio kolektiboaren zerbitzua erabiltzeko garraio tituluen kontraprestazio gisa soilik erabili ahal izatea.

2. Zenbakituta egotea, izenarekin ematea, eta enpresaren izena agertzea.

3. Eskualdaezinak izatea.

4. Ez enpresak ez hirugarrenek dirua ezin itzuli izatea.

5. Txartelak edo ordainbide elektronikoak ematen dituen enpresak langile bakoitzari emandakoen zerrenda gorde beharko du; bertan honako datu hauek agertu behar dira:

a) Agiriaren zenbakia.

b) Langilearen esku urtean jarritako zenbatekoa.

2. Ordaintzeko zeharkako formula hauen bidez lortutako zenbatekoa ez da izango gauzazko lansaria, eta ezin izango da izan 136,36 euro hilean baino gehiago, ez 1.500 euro urtean baino gehiago."

Hamasei. 55 ter artikuluaren 3. apartatuaren bigarren paragrafoa aldatzen da eta honela geratzen da:

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

"Aurreko paragrafoan ezartzen dena izatezko bikoteei ere aplikatuko zaie, baldin eta bikoteak hautatutako ondarearen araubide ekonomikoari Euskal Zuzenbide Zibilaren Legearen manu hori aplikatzen bazaio."

Hamazazpi. 60. artikuluaren 1. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

"1. Zergaren Foru Arauaren 23., 81 bis eta 82. artikuluetan aipatutako desgaitasuna zuzenbidean onartutako frogabideetako baten bitartez egiaztatu ahal izango da.

Hala ere, legezko ezintasuna egiaztatutzat hartzeko ezinbestekoa da:

a) Arabako Foru Aldundiko organo eskudunak, Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak edo dena delako autonomia erkidegoan horren parekoa den organo eskudunak ziurtatzea.

Honi dagokionez, ez da beharrezkoa izango ziurtagiria horrexetarako berariaz emana izatea; aitzitik, aurrean aipatutako organoek emandako zeinahi agiri izango da baliozkoa, baldin eta bertan argi eta garbi adierazten badira ezintasunaren gradua (Zergaren Foru Arauaren 23., 81 bis eta 82. artikuluetan aipatzen dena, hurrenez hurren) eta horrek Foru Arauaren 23. artikuluan aipatzen den azpibaremoekin daukan erlazioa.

b) Gizarte Segurantzak edo Klase Pasiboen Araubide Bereziak aitortutako prestazioa jasotzea ezintasun iraunkorragatik, baldin eta hura aitortzeko Zergaren Foru Arauaren 23., 81 bis eta 82. artikuluetan ezarritako ezintasun gradua eskatzen bada.

Hain zuzen ere, ehuneko 33ko desgaitasuna edo handiagoa frogatutzat emango zaie erabateko ezintasun iraunkorra edo ezintasun handia aitortuta daukaten Gizarte Segurantzako pentsiodunei eta zerbitzurako ezintasun iraunkorraren ondoriozko erretiro pentsioa aitortuta daukaten klase pasiboetako pentsiodunei.

Nolanahi ere, epaile batek pertsona bati ordezkapen ahalmenak dauzkan kuradoretza ezartzen badio, zerga honi buruzko araudian ehuneko 65eko desgaitasuna edo handiagoa daukaten pertsonez ezarritako xedapen bereziak aplikatuko dira."

Hemezortzi. 61. artikuluaren 4. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

"4. Zergaren Foru Arauaren 42. artikuluaren b) c) eta e) letretan eta 49. artikuluan ezarritako salbuespenak aplikatzeko, ez beste ezertarako, ondoko kasuan zergadunak ohiko etxebizitza eskualdatu duela pentsatuko da: artikulu honetan ezarritakoaren arabera eraikina une horretan beraren ohiko etxebizitza denean edo, bestela, eskualdatu aurreko bi urteetan ohikoa izateari utzi dionean."

Hemeretzi. 66. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

"66. artikulua. Inbertsioengatik eta beste jarduera batzuengatik aplika daitekeen kenkaria. Ikusi oharrak.

Zerga honen zergadunek aktibo finko material berrietan inbertitzeko eta jarduera jakin batzuk egiteko Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren V. tituluaren III. kapituluan ezarritako kenkariak aplikatu ahal izango dituzte, ehuneko eta muga eurekin."

Hogei. 78. artikuluaren k) letra aldatzen da eta artikulu berean m) letra gehitzen da; hona:

"k) Talde inbertsioko erakundeen partaidetzak edo akzioak itzuli edo eskualdatuta lortzen diren ondare irabaziak, baldin eta, Zergaren Foru Arauaren 48. artikuluan ezarritakoaren arabera, konputatu behar ez badira."

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

"m) Talde inbertsioko erakunde hauek jaulkitako partaidetzak edo akzioak itzulita edo eskualdatuta lortzen diren ondare irabaziak:

1. Talde inbertsioko erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legea garatzen duen Araudiak, uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuaren bidez onetsiak, 79. artikuluan arautzen dituen funts kotizatuak eta kapital aldakorreko inbertsioko indize sozietate kotizatuak.

2. Atzerrian eratutako talde inbertsioko erakundeak, aurreko 1. zenbakian aipatutakoen antzekoak eta Zergaren Foru Arauaren 52. artikuluan aipatzen direnez bestelakoak, merkatu arautu batean nahiz negoziazio sistema aldeaniztun batean kotizatzen dutenak, edozein dela ere erreproduzitzen, errepikatzen edo erreferentziatzat hartzen duten indizearen osaera, baldin eta, gainera, itzulketa edo eskualdaketa ez bada egiten jurisdikzio ez-kooperatibotzat jotzen den herrialde edo lurralde batean dagoen merkatu batean."

Hogeita bat. 92. artikuluaren 1. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

"1. Etekinak lanbide jarduera baten kontraprestazioak direnean, ehuneko 15eko atxikipen tasa aplikatuko da ordaindutako diru sarrera osoen gainean.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, zergadunak lanbide jarduera hasten badu, atxikipen tasa ehuneko 7 izango da jarduera hasten den zerga ekitaldian eta hurrengo bietan, baldin eta jarduera hasi aurreko urtean ez badu inolako lanbide jarduerarik egin.

Honen aurreko paragrafoan ezarri den atxikipen tasa aplikatzeko, zergadunek etekinen ordaintzaileari jakinarazi beharko diote inguruabar hori gertatu dela, eta ordaintzaileak jakinarazpena gorde beharko du, behar bezala sinatuta.

Ehuneko 7ko atxikipen tasa aplikatuko zaie honako hauei ordaindutako etekinei:

- Udal zerga biltzaileei.

- Kanpoko laguntzaileen zerbitzuak erabiltzen dituzten aseguru bitartekariei.

- Estatuaren Loteria eta Apustuen Estatu Sozietatearen ordezkari komertzialei.

- Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifetako 2. ataleko 851., 852., 853.,861.,862., 864. eta 869. taldeetan dauden jarduerak egiten dituzten zergadunei eta jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifetako 3. ataleko 01., 02., 03. eta 05. multzoetan dauden jarduerak egiten dituzten zergadunei (tarifa horiek eta beren aplikaziorako jarraibidea 573/1991 Araugintzako Foru Dekretuak onetsi zituen; 573/1991 Araugintzako Foru Dekretua, uztailaren 23koa jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifak eta horiek aplikatzeko jarraibidea ere onartzen dituena). Gainera, tasa hori aplikatuko zaie lanbide jardueraren kontraprestazioa honelako zerbitzu prestazio bat egiteagatik lortzen dutenei ere: zerbitzu prestazioaren izaera dela eta, hura besteren kontura egingo balitz, arte eszenikoetan, ikus-entzunezkoetan eta musikaletan aritzen diren artisten edota jarduera hori garatzeko beharrezkoak diren jarduera tekniko edo osagarriak egiten dituztenen lan harreman bereziaren aplikazio eremuan sartuko litzatekeen zerbitzu prestazioa, baldin eta, gidoi honetan aurreikusitako kasuetako edozeinetan, jarduera horien bidez aurreko ekitaldian lortutako etekin guztiak 15.000 euro baino gutxiago badira eta, gainera, zergadunak ekitaldi horretan jarduera ekonomikoen eta lanaren bidez lortutako etekin guztien baturaren ehuneko 75 baino gehiago badira. Atxikipen tasa hori aplikatzeko, zergadunek etekinen ordaintzaileari jakinarazi beharko diote inguruabar hori gertatu dela, eta ordaintzaileak jakinarazpena gorde beharko du, behar bezala sinatuta.

Halaber, atxikipen tasa ehuneko 7koa izango da, egile eskubideen ustiapenaren lagapenetik eratorritako konturako aurrerakinak direnean eta hainbat urtetan zehar sortuko direnean."

Hogeita bi. Lehenengo xedapen gehigarria edukirik gabe uzten da.

Hogeita hiru. 84. artikuluaren 1. eta 4. apartatuak aldatzen dira, eta honela geratzen dira idatzita:

"1. Atxikipen portzentajeen taula orokorra.

Urteko etekinaren zenbatekoa (€)		Ondorengoen kopurua						
Gutxienez	Gehienez	0	1	2	3	4	5	Gehiago
0,00	20.000,00	0	0	0	0	0	0	0
20.000,01	20.510,00	7	5	3	0	0	0	0
20.510,01	21.300,00	8	6	4	1	0	0	0
21.300,01	22.150,00	9	7	5	2	0	0	0
22.150,01	23.220,00	10	9	7	4	0	0	0
23.220,01	24.050,00	11	10	8	5	1	0	0
24.050,01	25.410,00	12	11	9	6	3	0	0
25.410,01	27.440,00	13	12	10	7	4	0	0
27.440,01	29.790,00	14	13	11	9	6	2	0
29.790,01	32.610,00	15	14	13	10	8	4	0
32.610,01	36.350,00	16	15	14	12	9	6	0
36.350,01	40.670,00	17	16	15	13	11	8	0
40.670,01	44.560,00	18	17	16	15	13	10	2
44.560,01	48.060,00	19	18	17	16	14	12	4
48.060,01	52.020,00	20	19	18	17	15	13	7
52.020,01	56.780,00	21	20	20	18	17	15	9
56.780,01	61.820,00	22	21	21	20	18	16	11
61.820,01	65.710,00	23	22	22	21	19	18	12
65.710,01	70.080,00	24	23	23	22	21	19	14
70.080,01	75.020,00	25	25	24	23	22	20	16
75.020,01	80.730,00	26	26	25	24	23	22	17
80.730,01	86.770,00	27	27	26	25	24	23	19

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

86.770,01	92.190,00	28	28	27	26	25	24	21
92.190,01	98.350,00	29	29	28	27	27	25	22
98.350,01	105.380,00	30	30	29	29	28	27	23
105.380,01	113.180,00	31	31	30	30	29	28	25
113.180,01	122.030,00	32	32	31	31	30	29	26
122.030,01	132.200,00	33	33	32	32	31	30	28
132.200,01	144.140,00	34	34	33	33	32	32	29
144.140,01	157.300,00	35	35	34	34	33	33	31
157.300,01	172.280,00	36	36	36	35	35	34	32
172.280,01	190.410,00	37	37	37	36	36	35	33
190.410,01	212.820,00	38	38	38	37	37	36	35
212.820,01	236.060,00	39	39	39	38	38	37	36
236.060,01	Hortik gora	40	40	40	39	39	39	37

”

“4. Desgaitasuna duten langile aktiboak.

Desgaitasuna duten langile aktiboei artikulu honen 1. apartatuan aipatutako atxikipen portzentajeen taula orokorra aplikatuko zaie. Taula orokorraren araberakok atxikipen portzentaje horri eskala honetan ezarritako puntuak kenduko zaizkio, langilearen egoeraren arabera:

a) Ehuneko 33ko edo gehiagoko eta ehuneko 65etik beherako desgaitasun maila duen langile aktiboa.

b) Ehuneko 33ko edo hortik gorako eta ehuneko 65etik beherako desgaitasun maila duen langile aktiboa, mugikortasun urriko gabezia egoeran dagoena. Horrelakotzat hartuko da Desgaitasun maila onartu, aitortu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duen urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuaren mugikortasun jardueren mugen azpibaremoan (BLAM) ehuneko 25eko edo gehiagoko azken mugikortasun muga izatea.

c) Ehuneko 65eko edo hortik gorako desgaitasun maila duen langile aktiboa.

Urteko etekinaren zenbatekoa (€)		Desgaitasun maila	
Gutxienez	Gehienez	4.a) apartatua	4.b) eta 4.c) apartatuak
0,00	25.410,00	9	12
25.410,01	32.610,00	7	12
32.610,01	48.060,00	6	10

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

48.060,01	56.780,00	5	10
56.780,01	80.730,00	4	8
80.730,01	122.030,00	3	6
122.030,01	190.410,00	2	5
190.410,01	Hortik gora	1	3

”

2. artikulua. Sozietateen gaineko zergaren arautegia onartzen duen abuztuaren 1eko 41/2014 Foru Dekretua aldatzea.

Abuztuaren 1eko 41/2014 Foru Dekretua, sozietateen gaineko zergaren arautegia onartzen duena, aldatzen da; hona aldaketak:

Bat. 2. artikuluaren 4. apartatua ezabatzen da.

Bi. 13. artikuluaren 1. apartatuaren c) letra aldatzen da eta honela geratzen da:

“c) Modu berean ematen zaienean pertsonen talde generikoei. Ondoko kasua ez da halakotzat hartuko: jardueraren jasotzaile nagusiak sustatzaileak, bazkideak, konpromisarioak eta zuzendaritza eta administrazioko kideak eta beren ezkontideak, izatezko bikoteko kideak edo laugarren gradura arteko ahaideak direnean (odol ahaideak, ezkontza bidezko ahaideak, izatezko bikotea eratzearen ondoriozko ahaideak zein adopzio bidezko ahaideak), edo horiei zerbitzua erabiltzeko baldintza bereziak aplikatzen zaizkienean.”

Hiru. 21 bis artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

“21 bis artikulua. Informazioa herrialdeka xehatuta eman beharra.

1. Zergaren Foru Arauaren 43. artikuluaren 10. apartatuan ezartzen den betebeharra aplikatzen zaien erakundeek informazioa herrialdeka xehatuta biltzen duen aitorpena aurkeztu beharko dute Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak onesten duen ereduan. Foru diputatu horrek aitorpena nola aurkeztu behar den finkatuko du eta baliabide elektronikoen bitartez zer kasutan eta nola aurkeztu behar den zehaztuko du.

2. Talde multinazionalak taldekoa den mendeko erakunde bat izendatzen badu aurreko apartatuan adierazitako informazioa aurkezteko eta erakunde horrek ezin badu bildu txostena herrialdeka xehatuta egiteko behar den informazio guztia, legez ezarri den bezala, izendapen hori ez egindakotzat joko da. Hala ere, mendeko erakunde horrek daukan informazioa aurkeztu beharko du eta inguruabar horren berri eman beharko dio Zerga Administrazioari.

3. Zergaren Foru Arauaren 43. artikuluaren 10. apartatuaren bigarren paragrafoan xedatzen denari jarraikiz Espainiako lurraldean egoiliar diren erakundeek edo Espainiako lurraldean dauden establezimendu iraunkorrek aurkeztu behar duten taldeari buruzko informazioa artikulu horretan aipatzen den erakunde ez-egoiliarrari eskatu beharko diote erakunde edo establezimendu iraunkor horiek.

4. Herrialdeka xehatutako informazioa zergaldia amaitzen denetik hamabi hilabete pasatu baino lehen aurkeztu behar da.”

Lau. 35. artikuluaren 1. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

"1. Gaiaren arabera eskumena daukan Arabako Foru Aldundiko saila edo hari atxikitako erakunde edo entitate bat izango da Zergaren Foru Arauaren 64. artikuluaren 3. apartatuan aipatzen diren txosten arrazoituak emateko eskumena daukan organoa."

Bost. 36 bis artikulua gehitzen da; hona:

"36 bis artikulua. Ikerketa eta garapeneko proiektuetan edo berrikuntza teknologikoko proiektuetan parte hartzea.

1. Zerga Administrazioari egin beharreko komunikazioa, Zergaren Foru Arauaren 64 bis artikuluaren 7. apartatuan aipatzen dena, ikerketa, garapen edo berrikuntza teknologikoko proiektua egiten duen zergadunak egin beharko du egoitza elektronikoan Ogasun eta Finantzen foru diputatuak horretarako onetsitako ereduan, eta komunikazio horri finantzaketa kontratua eta foru arau horren 64 bis artikuluaren 7. zenbakian aipatzen den txostena erantsi beharko dizkio.

Era berean, jakinarazpenarekin batera, behar denean, finantzaketa kontratuaren egituraketan jarduten duen bitartekariarekin formalizatutako kontratuaren kopia aurkeztu beharko da.

2. Zergaldi batean zenbateko batzuk aplikatu gabe geratzen badira Zergaren Foru Arauaren 64 bis artikuluaren 4. apartatuaren bigarren paragrafoan aipatutako mugaren ondorioz, zenbateko horiek hurrengo zergaldietan aplikatu ahal izango dira, aipatutako muga errespetatuta.

3. Zergaren Foru Arauaren 64 bis artikuluaren 2. apartatuan aipatzen den finantzaketa kontratua proiektuari ekiten zaion zergaldia amaitu baino lehen formalizatu ahal izango da, baldin eta Zergaren Foru Arauaren 64 bis artikuluaren 7. apartatuan aipatzen den txostena epealdi horren barruan eskatu bada. Proiektuari zergaldiko bigarren seihilekoan ekiten bazaio, aitorpena egiteko borondatezko aldia hasi aurretik eskatu ahal izango da txostena eta formalizatu ahal izango da finantzaketa kontratua.

Aurreko paragrafoaren bigarren tartekian aipatzen den kasuan, finantzaketa kontratuari Zergaren Foru Arauaren 64 bis artikuluaren 7. apartatuan aipatzen den txostenaren kopia erantsi beharko zaio, eta artikulu horren 1. apartatuan xedatzen denaren aplikazioa etenda gelditukо da harik eta txosten hori jaso arte, ordura arte ekarritako funtsekin proiektua egiten hasten den ekitaldian egindako gastuak ere finantzatu ahal izango dira.

Proiektu bat zergaldi batean baino gehiagotan luzatzen bada, zergadunek hautatu ahal izango dute zergaldi bakoitzean apartatu honetan xedatzen dena aplikatzea eta, beraz, urte bakoitza proiektu bereizitzat hartzea."

Sei. 36 ter artikulua gehitzen da; hona testua:

"36 ter artikulua. Negozio prozesuak berrikuntza teknologikoaren esparruan.

Zergaren Foru Arauaren 63. artikuluaren 2. paragrafoan xedatzen dena dela eta, honako hauek dira negozio prozesuak:

a) Ondasunen eta zerbitzuen ekoizpena: baliabideak edo lehengaiak eraldatzea azken produktua (ondasuna edo zerbitzua) lortzeko. Jarduera bat ondasunen eta zerbitzuen ekoizpentzat jotzeko, enpresaren negozio nagusiarekin lotuta egon behar da.

Letra honetan honako jarduera hauek daude:

- Ingeniaritzako jarduerak.

- Produktuen muntaketa.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

- Ekoizpenaren kudeaketa.

- Zerbitzu ematearen kudeaketa.

- Kalitate kontrolen establezimendua.

- Ekoizpenerako proba teknikoak, analisiak eta ziurtapenak egitea.

- Osagaiak fabrikatzea.

b) Administrazioa eta kudeaketa: beharrezko jarduera operatiboak, azken produktuarekin edo zerbitzuarekin zuzenean lotuta ez daudenak, baina enpresaren jarduera nagusiaren lagungarriak direnak: finantzen arloko eta administrazioaren arloko baliabideak eta prozesuak kudeatzea, kontrolatzea eta optimizatzea.

Letra honetan honako jarduera hauek daude:

- Enpresaren eta estrategiaren kudeaketa eta antolaketa.

- Gobernantza korporatiboa (legeria, plangintza eta harreman publikoak).

- Kontabilitatea, liburuak arteztea, auditoretza, ordainketak, eta finantzen edo aseguruen inguruko beste jarduera batzuk.

- Pertsonen kudeaketa (prestakuntza eta heziketa, langileak kontratatzea, lantokia antolatzea, aldi baterako langileak kontratatzea, nominak kudeatzea, osasun laguntza eta medikuntza laguntza).

- Ondasunen eta laguntza zerbitzuen erosketen kudeaketa.

- Kanpoko harremanen kudeaketa: hornitzaileak edo aliantzak, batez ere.

c) Banaketa eta logistika: hornigaiak eta produktuak erostea eta biltzea, eta produktu bukatuak bezeroei eramatea.

Letra honetan honako jarduera hauek daude:

- Eskariaren inbentarioa egitea eta plangintza.

- Lehengaien eta produktuen erosketak kudeatzea.

- Biltegia kudeatzea.

- Eskaerak bideratzea.

- Produktuak ontziratzea.

- Produktuak garraiatzea eta ematea.

d) Marketina eta salmentak: kontsumitzaileen beharrizanak eta jokabideak aztertzea, eta merkatuaren eskaria asetzen duen produktua edo zerbitzua sustatzea, zabaltzea eta saltzea.

Letra honetan honako jarduera hauek daude:

- Merkatua ikertzea.

- Publizitatea eta komunikazioa.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

- Merkatu berriak garatzea.

- Prezioak finkatzeko estrategiak eta metodoak.

- Salmenta kanalen estrategia eta kudeaketa.

- Salmenta eta salmenta ondoko jarduerak, bezeroaren arretarako zerbitzuak barne.

e) Informazioa emateko eta komunikatzeko sistemak: enpresaren gainerako negozio prozesuen kudeaketa operatiboa sustatzeko behar diren hardwarea eta softwarea kudeatzea, garatzea eta mantentzea.

Letra honetan honako jarduera hauek daude:

- Beharrizan eta zehaztapen funtzionalak identifikatzea.

- Hornidura (CPUak, RAM, txartel grafikoa, lizentziak eta antzekoak).

- Diseinatzea, garatzea, mantentzea eta eguneratzea.

f) Produktua eta negozio prozesuak garatzea: ondasun edo produktu bat edo enpresaren negozio prozesuetako bat (ondasunen eta zerbitzuen ekoizpena, administrazioa eta kudeaketa, banaketa eta logistika, marketina eta salmentak, eta informazioa emateko eta komunikatzeko sistemak) diseinatzeko edo birdiseinatzeko egin beharreko jarduerak.

Letra honetan honako jarduera hauek daude:

- Produktuaren edo zerbitzuaren kontzeptua eta ideia sortzea.

- Bideragarritasun teknikoari eta ekonomikoari buruzko azterketak (negozio planak egitea).

- I+G jarduerak kudeatzea.

- Diseinatzea eta garatzea.

- Prototipoak sortzea, testak egitea eta baliozkotzea.

- Negozio prozesua ezartzea.

- Produktua kaleratzea (ondasunen industrializazioa barne).”

Zazpi. 38. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

“38. artikulua. Enplegua sortzeagatik aplika daitekeen kenkaria.

1. Zergaren Foru Arauaren 66. artikuluaren 1. apartatuaren hirugarren paragrafoan xedatutakoa dela bide gehitutako kenkaria aplikatzeko ondoko baldintza hauek bete behar dira:

a) Kontratazioa egiten den zergaldiaren amaieran lan kontratu mugagabearekin ari diren kontratatzeko eragozpen handiko taldeetako langileen kopurua ez murriztea hurrengo hiru urteetan amaitzen diren zergaldietan, eta gainera lan kontratu mugagabearekin ari diren kontratatzeko eragozpen handiko taldeetako langileen kopurua kenkaria sortzen den zergaldiaren hasieran bano handiagoa izatea eta gehikuntza gehitutako kenkarirako eskubidea ematen duten kontratuen kopurua izatea gutxienez.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

b) Zergaren Foru Arauaren 66. artikuluaren 1. apartatuaren hirugarren paragrafoan aipatzen den langileen kopurua (lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten taldeetako langileak, lan kontratu mugagabea dutenak) kontratazioak egin aurreko zergaldikoa baino handiagoa izan behar da, eta gehikuntza kenkari handitua aplikatzeko eskubidea ematen duten kontratuen kopuruaren bestekoa izan behar da, gutxienez. Horretarako guztirako, artikulu honen 3. apartatuan ezartzen dena aplikatuko da.

Apartatu honetan ezarritako betekizunak betetzen ez badira, zergadunak ez betetzea gertatzen den zergaldiko autolikidazioan kenkaria gehitzearen ondoriozko kuota sartu behar du, eta horrekin batera beraren berandutze interesak ere bai.

2. Zergaren Foru Arauaren 66. artikuluaren 1. apartatuaren hirugarren paragrafoan aipatzen den kenkari handitua aplikatu ahal izango da kontratatutako pertsona laneratzeko zailtasun bereziak dituzten taldeetako batean dagoenean, eta hori betetzat joko da pertsona hori, kontratazioa egin denean, honako talde hauetakoa izanez gero:

a) 30 urtetik beherako edo 45 urtetik gorako langileak.

b) Ehuneko 33ko desgaitasuna edo hortik gorakoa onartuta duten pertsonak.

c) Langabezian luzaroan dauden pertsonak. Horretarako, lanik gabe luzaroan egon diren pertsonak dira kontratazioaren aurreko azken 540 egunetatik 360 egunetan gutxienez lanik gabe eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan edo enpleguko beste zerbitzu publiko batean lan eskatzaile moduan inskribatuta egon direnak. Langabezia frogatzeko, lan bizitza aurkeztu beharko da.

d) Guraso bakarreko familietako aita edo ama, baldin eta kontratatutako pertsona kontratazioaren aurreko hiru hiletan gutxienez lanik gabe eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan edo enpleguko beste zerbitzu publiko batean lan eskatzaile moduan inskribatuta egon bada. Ondorio horietarako, halakotzat hartuko dira ordaindutako jarduerarik egiten ez duen ondorengoren bat edo batzuk beren kargu dituzten pertsonak. Langabezia frogatzeko, lan bizitza aurkeztu beharko da.

e) Genero indarkeriaren biktima izan diren emakumeak; egoera horretan honako hauek daude: ezkontidearen eskutik edo afektibitate harreman baten bitartez berarekin modu egonkorrean lotuta egon den pertsona baten eskutik indarkeria fisiko edo psikikoa jasan duten emakumeak, eta halako indarkeria jasan duen seme edo alaba baten amak, baldin eta indarkeria frogatzen bada 1/2004 Lege Organikoan xedatzen den bezala (1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa) edo Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko zerbitzu egokiaren esku hartzearen frogagiriaren bidez.

f) Laneratzeko enpresen kalifikazioa arautzen duen eta horietan sartzeko prozedura eta horien erregistroa ezartzen dituen azaroaren 11ko 182/2008 Dekretuan arautzen diren laneratzeko enpresetan gizarteratzeko eta laneratzeko prozesua amaitu duten pertsonak, baldin eta kontratazioa prozesua amaitu ondoko hamabi hiletan egiten bada.

g) Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legean, Gizarte-larrialdietarako laguntzak arautzen dituen urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuan eta Bizitzeko gutxieneko errenta ezartzen duen abenduaren 20ko 19/2021 Legean ezartzen diren laguntzen onuradunak, eta horien antzeko helburua duen beste laguntza publikoren bat, lurralde administrazio publiko batek emana, jasotzen duten pertsonak.

h) Toxikomano izandako pertsonak (alkoholiko ohiak eta drogazale ohiak). Halakotzat joko dira talde terapeutikoaren ustez desintoxikazio fasea eta mendekotasuna kentzeko fasea gainditu ondoren eta etengabeko tratamenduan sei hilabete emandakoan lanaren bidez gizarteratzeko programa batean egon behar direla uste den pertsonak.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

i) Espetxean dauden pertsonak, hain zuzen ere lan kontraturik ez dutenak eta espetxe araubidearen arabera lanpostu bat eskuratzeko aukera dutenak, eta preso ohiak, baldin eta kontratazioa espetxetik irten ondoko hamabi hiletan egiten bada.

j) Atzerrian bizi diren langileak (lanean ari direnak zein ari ez direnak), Euskadira lan egitera itzuli nahi dutenak (Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren itzuli nahi duten pertsonen erregistroan daudenak).

3. Zergaren Foru Arauaren 66. artikuluaren 2. apartatuaren bigarren paragrafoan xedatutakoa aplikatzeko kontratazioak egin diren zergaldiaren aurreko zergaldiko egun guztietan egon diren langileen kopurua hartuko da aintzat.

4. Zergaren Foru Arauaren 66. artikuluaren 2. apartatuaren azken aurreko paragrafoan ezarritako baldintza ez da bete gabetzat joko soldataren murrizketa eragiten duena denean langileak lanaldia murrizteko eskubidea erabiltzea soldataren murrizketa proportzionalarekin (eskubide hori Langileen Estatuaren Legearen testu bateginaren 37. artikuluaren 4 - 8 bitarteko apartatuetan onartzen da; testu bategin hori urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen).”

Zortzi. 38 bis artikulua gehitzen da; hona:

“38 bis artikulua. Kenkaria zilarrezko ekonomiarekin lotutako mikroenpresetan, enpresa txikietan edo enpresa ertain inbertitzeagatik.

1. Zergaren Foru Arauaren 66 bis artikuluan xedatzen denari dagokionez, erakunde baten sozietate xedea zuzenean lotuta dago zilarrezko ekonomiaren sektorearekin haren jardunaren zuzeneko helburua adineko pertsonen beharrizan berezietara egokitutako ondasunak eta zerbitzuak diseinatzea, ekoiztea edota hornitzea denean, batez ere honako eremu hauetan: osasuna eta zaintza, komunikazioa, ekonomiaren eta finantzen inguruko aholkularitza, trebakuntza eta talentuaren aprobetxamendua, aisia eta entretenimendua, segurtasuna, garraioa eta etxebizitza.

Aurreko paragrafoan aipatutako zuzeneko lotura egon dadin, adinekoen berariazko premietara egokitutako ondasunen eta zerbitzuen diseinutik, ekoizpenetik eta/edo horniduratik datorren diru sarreren bolumena erakundearen guztirako diru sarreren bolumenaren ehuneko 50 izan beharko da gutxienez.

Aurreko paragrafoan aipatzen den baldintza Zergaren Foru Arauaren 66 bis artikuluko kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen duten akzioak edo partaidetzak eskuratzen diren zergaldian bete behar da, eta gutxienez hurrengo 5 zergaldietan ere bai.

2. Zergaren Foru Arauaren 66. artikuluaren 6. apartatuan ezartzen denaren arabera, akzioak edo partaidetza harpidetu edo eskuratu zaizkion erakundeak ziurtagiria egin behar du esanez ezarritako baldintzak bete direla, eta bertan zehaztu behar da zer eremutan dagoen erakundearen sozietate xedea (aurreko apartatuan aipatu direnetako bat).”

Bederatzi. 38 ter artikulua gehitzen da; hona:

“38 ter artikulua. Kenkaria ikus-entzunezko lanen ekoizpenetako inbertsioengatik eta gastuengatik. Kultura ziurtagiria eta filmategian gordailatzea.

1. Ikusi-entzuneko lana kulturala dela egiaztatzen duen ziurtagiria Arabako Foru Aldundian edo Eusko Jaurlaritzan kulturaren arloko eskumena daukan sailari edo hari atxikitako erakunde bati eskatu ahal izango zaio.

Kultura ziurtagiria lortzeko, zergadunak frogatu beharko du ziurtagiria eskatzen den lanak kultura sustatzen eta Europako ondarea zaintzen laguntzen duela. Horretarako, besteak beste, kontuan

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

hartu ahal izango dira hizkuntza, obra girotzeko tokia, garrantzi historikoa edo kulturala eta aniztasun kultural, sozial, erlijioso, etniko, filosofiko edo antropologikoari egiten dion ekarpena.

Kultura ziurtagiria ikus-entzunezko lanaren ekoizpena amaitutakoan edo ekoizpenean zehar eskatu ahal izango da. Ekoizpenean zehar eskatzen bada, helburua izan behar da Zergaren Foru Arauaren 66 quater artikuluan aipatzen diren zergadunek kenkaria aplikatu ahal izatea ikus-entzunezko obren finantzaketan parte hartzeagatik.

Nolanahi ere, ziurtagiria ikusi-entzuneko lanaren ekoizpena amaitzen den zergaldiko zergaren autolikidazioarekin batera aurkeztu beharko zaio Zerga Administrazioari.

Apartatu honetan aipatzen den ziurtagiria loteslea izango da Zerga Administrazioarentzat ikusi-entzuneko lanaren izaerari dagokionez. Hala ere, Zerga Administrazioak egiaztatu beharko du inbertsioak eta gastuak egin diren ala ez eta egindako jarduerak ziurtagirian agertzen direnekin bat datozen ala ez.

2. Euskadiko Filmategian edo ikusi-entzuneko lanak bildu, katalogatu, kontserbatu, zaharberritu edo jendearen eskura jartzeko eskumena duten instituzio edo erakundeetan kopia berri bat utzi delako froga ikusi-entzuneko lanaren ekoizpena amaitzen den zergaldiko zergaren autolikidazioarekin batera eman beharko zaio Zerga Administrazioari, baldintza hori bete behar den kasuetan."

Hamar. 38 quater artikulua gehitzen da; hona:

"38 quater artikulua. Kenkaria ikus-entzunezko lanen ekoizpenetako inbertsioengatik eta gastuengatik. Kreditu tituluen eta material grafikoaren inguruko baldintzak.

Ikus-entzunezko lanen produkzioetako inbertsioengatik eta gastuengatik kenkaria aplikatzeko, honako hauek bete beharko dira:

a) Eskubideen titularrek baimena eman behar diote Arabako Foru Aldundiari lanaren izenburua erabiltzeko eta merkatuan estreinatu ondoren bi hilabete igaro ondoren Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetan egindako filmaketaren edo beste edozein produkzio prozesu baten bidez sortutako material grafikoa eta ikus-entzunezkoa erabiltzeko, soil-soilik kulturaren, turismoaren eta/edo ekonomiaren arloan eskumenak dituzten sektore publikoko erakundeek promozio jarduerak egiteko eta promozio materialak prestatzeko.

b) Ikus-entzunezko lanean hauek agertu behar dira:

—Arabako Foru Aldundiaren logotipoa, hasierako kreditu tituluetan.

—Amaierako kreditu tituluetan aipamen hau: «La producción se ha acogido a los incentivos fiscales previstos en la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Álava / Ekoizpen hau Arabako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauan aurreikusten diren zerga-pizgarrien babesarekin egin da / This production has benefited from the tax incentives included in the Corporate Tax Law of Álava."

Hamaika. 38 quinquies artikulua gehitzen da; hona:

"38 quinquies artikulua. Kenkaria ikus-entzunezko lanen ekoizpenetako inbertsioengatik eta gastuengatik. Obra zailtzat jotzea.

1. Obra zailtzat jotzeko (Zergaren Foru Arauaren 66 quater artikulua, lehenengo apartatua, 5. zenbakia, i) letra), Zerga Administrazioari eskabidea aurkeztu beharko zaio Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez. Eskabidea zergadunak kenkarirako eskubidea daukala frogatzen duen lehen zergaldia amaitu baino lehen aurkeztu beharko da .

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

2. Eskabidea araudi honen 45. artikuluan ezarritako prozedura orokorraren arabera izapidetuko da, aplikagarriak diren berezitasunekin, behar denean."

Hamabi. 38 sexies artikulua gehitzen da; hona:

"38 sexies artikulua. Ikus-entzunezko lanen ekoizpenetan egindako inbertsioengatik eta gastuengatik aplika daiteken kenkaria, arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunengatik aplika daitekeen kenkaria eta liburuak argitaratzeagatik aplika daitekeen kenkaria. Foru agindu baten bidez ezartzea kenkariaren kontzeptuak eta alderdiak.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren foru agindu baten bidez ezarri ahal izango da zer inbertsio eta gastu sartuko diren ikusi-entzuneko lanen ekoizpenaren kenkariaren oinarrian, eta zer irizpide aplikatuko diren inbertsioak eta gastuak kenkari horren ondorioetarako Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetan egintzat jotzeko. Gainera, agindu horretan ezarri ahal izango dira zuzeneko zer kostu artistiko, tekniko eta sustapeneko hartuko diren aintzat arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunen kenkarirako, eta zer inbertsiok sortuko duten eskubidea kenkaria aplikatzeko liburuak argitaratzeagatik.

Halaber, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren foru agindu baten bidez Zergaren Foru Arauaren 66 ter artikuluaren lehenengo apartatuaren 6. apartatuan aipatzen den zerga arautegiko kontzeptuak zehaztu ahal izango dira."

Hamahiru. 38 septies artikulua gehitzen da; hona:

"38 septies artikulua. Kenkaria arte eszenikoen eta musikaren arloko zuzeneko ikuskizunengatik. Ikuskizuna kulturala dela eta egin dela frogatzen duen ziurtagiria.

1. Zergaren Foru Arauaren 66 ter artikuluaren bigarren apartatuaren 2. zenbakian ezartzen den ziurtagiria aurkeztu behar da arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunengatik kenkaria aplikatzeko. Horren bidez bi gauza frogatu behar dira:

a) Ekoizpena kulturala dela.

b) Arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizuna egin dela.

2. Aurreko apartatuan aipatzen den ziurtagiria Arabako Foru Aldundian edo Eusko Jaurlaritzan kulturaren arloko eskumena daukan sailari edo hari atxikitako erakunde bati eskatu ahal izango zaio.

3. Aurreko 1. apartatuan aipatzen den ziurtagiriaren eskabidean datu hauek agertu behar dira:

a) Ikuskizunaren izenburua edo jaialdiaren edo espazio eszenikoaren izena.

b) Emanaldien guztirako kopurua.

c) Lehen eta azken emanaldien datak.

d) Ikuskizun, jaialdi edo espazio eszenikoko egitarau bakoitzeko honako dokumentazio hau erantsiko da (bertan, ziurtagiria eskatzen duen zergaduna antolatzaile gisa agertu behar da berariaz):

—Lanaren eskaintzeko modua ematen duen legezko titulua, hala nola hitzarmena, kontratua edo egile eskubideak ordaindu direlako egiaztagiria.

—Promozio dokumentuak, hala nola prentsako iragarkiak, esku programak, kartelak, buletinak eta abar.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

e) Kenkarirako eskubidea ematen duen ikuskizunak Europako kultura sustatzen eta Europako ondarea jagoten laguntzen duelako egiaztagiria. Ondorio horietarako, kontuan hartu ahal izango dira, besteak beste, hizkuntza, ikuskizuna girotzeko tokia, garrantzi historikoa edo kulturala eta aniztasun kultural, sozial, erlijioso, etniko, filosofiko edo antropologikoari egiten dion ekarpena.

4. Ziurtagiria zuzeneko ikuskizunaren ekoizpena eta emanaldiak amaitu ondoren eskatu ahal izango da, bai eta emanaldiak amaitu baino lehen ere, baina kasu honetan ikuskizuna kultura dela frogatzeko baino ez, eta Zergaren Foru Arauaren 66 quater artikuluan aipatzen diren zergadunek arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunen finantzaketan parte hartzeagatik kenkaria aplikatu ahal izateko bakarrik emango da. Horretarako, ziurtagiria eskabidean hauxe bakarrik egiaztatu beharko da: ikuskizunak Europako kultura sustatzen eta Europako ondarea jagoten laguntzen duela.

Zuzeneko ikuskizunaren emanaldiak amaitutakoan zergadunak beste eskabide bat aurkeztu beharko du aurreko 1. apartatuan xedatzen dena betetzen amaitzeko. Ziurtagiriaren eskabidean ikuskizuna eman dela egiaztatzeko behar diren gainerako datuak eta agiriak (aurreko 3. apartatuan aipatzen direnak) agertu beharko dira.

5. Aurreko 4. apartatuan xedatzen dena gorabehera, zergaldian gertatu dena bakarrik kontuan hartuta eskatu ahal izango da ziurtagiria, erreferentziatzat ikuskizunak iraun duen aldiko zergaldi bakoitzeko lehen eta azken emanaldiak hartuta.

6. Aurreko 1. apartatuan aipatzen den ziurtagiria zuzeneko ikuskizunaren emanaldiak amaitu diren zergaldiko zergaren autolikidazioarekin batera aurkeztu beharko zaio Zerga Administrazioari.

Hala ere, ikuskizuna ematen den bitartean, aurreko 5. apartatuan aipatzen den ziurtagiria ziurtatzen duen zergaldiko zergaren autolikidazioarekin batera aurkeztu beharko zaio Zerga Administrazioari.

7. Honako ziurtagiri hauek baliozkoak izango dira kenkaria aplikatzeko: arloko eskumena daukan erakunde estatal edo autonomiko batek edo Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko estatu bateko pareko erakunde batek aurreko 1. apartatuan aipatzen diren inguruabarrak egiaztatzeko egindako ziurtagiriak.

Ziurtagiriak ikuskizuna egin dela edo kultura arlokoa dela baino egiaztatzen ez badu, beste inguruabarra ere egiaztatzeko behar den ziurtagiria eskatu beharko da.

8. Ziurtagiria loteslea izango da Zerga Administrazioarentzat ikus-entzunezko lana kulturala dela eta egin dela onartzeko. Hala ere, Zerga Administrazioak egiaztatu beharko du inbertsioak eta gastuak egin diren ala ez eta egindako jarduerak ziurtagirian agertzen direnekin bat datozen ala ez.”

Hamalau. 38 octies artikulua gehitzen da; hona:

“38 octies artikulua. Ikus-entzunezko lanen, arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunen eta liburuen argitalpenen finantzaketan parte hartzea. Baldintzak.

1. Zergaren Foru Arauaren 66 quater artikuluaren 2. apartatuan aipatzen diren itzuli beharrik gabeko ekarpenak finantzazio kontratu batean agertu behar dira; kontratuan honako datu hauek eman behar dira:

a) Nortzuk diren ikus-entzunezko lanaren edo arte eszenikoen eta musikalen arloko zuzeneko ikuskizunaren produkzioan eta finantzaketan edo liburuaren argitalpenean parte hartzen duten zergadunak.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

b) Ikus-entzunezko lanaren edo arte eszenikoen eta musikalen arloko zuzeneko ikuskizunaren edo argitaratuko den liburuaren deskribapena.

c) Ikus-entzunezko lanaren edo arte eszenikoen eta musikalen arloko zuzeneko ikuskizunaren ekoizpenaren edo liburuaren argitalpenaren aurrekontua; bertan gastuak xehatu behar dira (ikus-entzunezko lanen kasuan, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetan egingo diren gastuak) eta gastu horien denbora egozpena egin behar da.

Datu hauek ere adierazi behar dira:

a') Ikus-entzunezko lanen kasuan, kopien gastuen eta ekoizlearen promozio eta publizitate gastuen aurrekontua eta horien aldi egozketa, zehatz-mehatz azalduta Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetan egingo direnak.

b') Zuzeneko ikuskizunen kasuan, emanaldien gastuen aurrekontua eta aldi egozketa.

d) Finantzatzeko modua, honako hauek bereizita: ikus-entzunezko lanaren edo arte eszenikoen eta musikalen arloko zuzeneko ikuskizunaren ekoizpena edo egiten duen edo liburua argitaratzen duen zergadunak ematen dituen zenbatekoak, finantzaketan parte hartzen duen zergadunak ematen dituenak eta finantza erakundeen kredituei, dirulaguntzei eta bestelako laguntza neurriei dagozkienak.

e) Finantzaketan parte hartzen duen zergadunak frogatzen duen kenkariaren kontuak, egindako gastuen zenbatekoa eta zer zergalditan egin diren xehatuta. Zenbateko horretan nahitaez errespetatu behar da Zergaren Foru Arauaren 66 quater artikuluaren 5. apartatuaren bigarren paragrafoan ezartzen den muga: 1,20.

Finantzaketa kontratua zenbait lanetarako egin bada, aurreko letretan ezartzen dena lan bakoitzeko bete beharko da.

2. Zergaren Foru Arauaren 66 quater artikuluaren 3. apartatuan xedatzen denaren ondorioetarako, produkzio fasearen hasiera irudiak eta/edo soinua hartzeko prozesua hasten den unea da.

3. Zerga Administrazioari egin beharreko komunikazioa, Zergaren Foru Arauaren 66 quater artikuluaren 9. apartatuan aipatzen dena, lana ekoizten edo liburua argitaratzen duen zergadunak edo horren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak egin beharko du Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez, eta komunikazio horri finantzaketa kontratua erantsi beharko dio.

Era berean, jakinarazpenarekin batera, behar denean, finantzaketa kontratuaren egituraketan jarduten duen bitartekariarekin formalizatutako kontratuaren kopia aurkeztu beharko da.

Gainera, ikusi-entzuneko lana edo zuzeneko ikuskizuna kulturala dela frogatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du, edo, oraindik jaso ez badu, eskatuta dagoela frogatzen duen dokumentazioa, araudi honen 38 ter artikuluaren 1. apartatuaren arabera eta 38 septies artikuluaren arabera, hurrenez hurren.

4. Zergaren Foru Arauaren 66 quater artikuluaren 3. apartatuan aipatzen den finantzaketa kontratua produkzio fasea hasten den zergaldia amaitu aurretik formalizatu beharko da; arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunen kasuan, lehenengo saioa egiten den zergaldia amaitu aurretik formalizatu beharko da, eta, liburuen argitalpenaren kasuan, maketazio fasea hasten den zergaldia amaitu aurretik. Baldin eta produkzio fasearen hasiera, lehen emanaldia edo maketazio fasearen hasiera zergaldiko bigarren seihilekoaren barruan gertatzen bada, finantzaketa kontratua aitorpena egiteko borondatezko aldia hasi aurretik formalizatu ahal izango da.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Halakoetan, ordura arte ekarritako funtsekin ekoizpen fasea hasten den, lehen emanaldia egiten den edo maketazio fasea hasten den ekitaldian egindako gastuak finantzatu ahal izango dira.

Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, produkzio fasearen hasiera irudiak eta/edo soinua hartzeko prozesua hasten den unea da.

Ikus-entzunezko lanaren, arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunaren edo liburuaren ekoizpena, emanaldia edo argitalpena zergaldi batean baino gehiagotan luzatzen bada, zergadunek hautatu ahal izango dute apartatu honetan ezartzen dena urte bakoitzeko aplikatzea, ikus-entzunezko lana, arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizuna edo liburua osorik hartu beharrean."

Hamabost. 38 novies artikulua gehitzen da; hona:

"38 novies artikulua. Ikus-entzunezko lanen, arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunen eta liburuen argitalpenen finantzaketan parte hartzea. Erregularizazioa.

Finantzaketa kontratu baten bi alderdiek aplikatzen badituzte Zergaren Foru Arauaren 66 ter artikuluaren lehen, bigarren eta hirugarren apartatuetan eta 66 quater artikuluan xedatzen diren kenkariak (kasuan kasukoak), Zergaren Foru Arauaren 66 ter artikuluaren lehen apartatuaren 2. zenbakiaren azken aurreko paragrafoan ezartzen denaren arabera (edo beste arrazoiren batengatik) egin beharreko erregularizazioa honela egingo da: lehenbizi 66 ter artikuluaren lehen, bigarren eta hirugarren apartatuetako zergadunek egindakoak erregularizatuko dira eta, horiek aski ez badira bidegabe egindako kenkarien guztirako zenbatekoa estaltzeko, 66 quater artikuluko zergadunek egindakoak, zenbateko horretara iritsi arte."

Hamasei. 38 decies artikulua gehitzen da; hona:

"38 decies artikulua. Ikus-entzunezko lanen, arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunen eta liburuen argitalpenen finantzaketan parte hartzea. Datuak zabaltzea.

Zergaren Foru Arauaren 66 ter artikuluaren lehenengo apartatuaren 7. zenbakian ezartzen denari jarraikiz datuak zabaltzeko, Arabako Foru Aldundiak pizgarriaren onuradun gisa identifikatuko du ikus-entzuneko lanaren ekoizlea edo ekoizle exekutiboa; finantzaketan parte hartzen duen zergaduna, berriz, ez."

Hamazazpi. 38 undecies artikulua gehitzen da; hona:

"38 undecies artikulua. Kultura sustatzeko pizgarriak egiaztatzen dituzten zergadunen informazio betebeharrak.

Zergaren Foru Arauaren 66 ter artikuluaren lehen eta bigarren apartatuetan arautzen diren kenkariak aplikatzeko eskubidea dutela frogatzen duten zergadunek honako informazio hau eman beharko dute zergaren autolikidazioarekin batera, gutxienez:

a) Zergaldian egindako ikus-entzunezko lanak eta arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunak, pizgarrirako eskubidea ematen dutenak.

b) Lan edo ikuskizun bakoitzean parte hartu duten gainerako pertsonak eta erakundeak, eta haien partaidetza.

c) Lan edo ikuskizun bakoitzerako jasotako laguntza edo dirulaguntza publikoen zerrenda.

d) Lan edo ikuskizun baten finantzaketan hirugarrenek parte hartu badute, Zergaren Foru Arauaren 66 quater artikuluan ezartzen den bezala, haien identifikazioa.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Eman beharreko informazio guztia Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen Saileko foru diputatuak zergaren autolikidaziorako eredua onesteko ematen duen foru aginduan zehaztuko da."

Hemezortzi. 47. artikulua edukirik gabe uzten da.

Hemeretzi. 48. artikuluaren 1. apartatua ezabatzen da eta oraindik aurrera 2. apartatua artikuluaren paragrafo bakarra izango, zenbakirik gabe.

Hogei. 49. artikulua edukirik gabe uzten da.

Hogeita bat. 51. artikuluaren 5. eta 26. zenbakiak aldatzen dira eta honela geratzen dira:

"5. Baloreen Merkatuari buruzko martxoaren 17ko 6/2023 Legearen 126. artikuluaren b) letran aipatzen diren baloreak erosteko edo saltzeko eragiketei lotuta emandako krediituen ondorioz balore sozietateek jasotzen dituzten interesak, eta inbertsio zerbitzuetarako enpresek halako enpresen eta inbertsio zerbitzuak egiten dituzten gainerako enpresen araubide juridikoari buruzko azaroaren 8ko 813/2023 Errege Dekretuaren 70. artikuluaren 1. apartatuan aipatzen diren mailegu edo gordailu eragiketa aktiboen ondorioz jasotzen dituzten interesak.

Halaber, kontrapartida zentraleko erakundeek eta kontrapartida zentraleko erakunde bateko kideak diren erakundeek honako hauetan ezartzen denaren aplikazioz eratutako bermeen kontraprestazio gisa jasotzen dituzten interesei ere ez zaie atxikipenik aplikatuko: 6/2023 Legea, martxoaren 17koa, baloreen merkatuari buruzkoa, 97. artikulua, 2. apartatua; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 648/2012 (EB) Erregelamendua, 2012ko uztailaren 4koa, burtsaz kanpoko eratorriei, kontrapartida zentraleko erakundeei eta eragiketa erregistroei buruzkoa, 41. eta 42. artikuluak; kontrapartida zentraleko erakundearen beraren araudia eta hori garatzen duten zirkularrak.

Orobat, ez zaie atxikipenik aplikatu beharko Baloreak ordaintzeko eta likidatzeko sistemei buruzko azaroaren 12ko 41/1999 Legearen arabera onartutako ordainketa sistemak kudeatzen dituzten erakundeek lege horren 2. artikuluaren d) letran ezartzen denari jarraikiz eratutako bermeen ondorioz jasotzen dituzten interesei, ez sistema horietako partaide diren erakundeek jasotzen dituztenei, ez ordainketa sistemako berezko eragiketetarako baino ez diren kontuetan sortzen diren interesei."

"26. Talde inbertsioko erakunde hauek jaulkitako partaidetzak edo akzioak itzulita edo eskualdatuta lortzen diren errentak:

1. Talde inbertsioko erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legea garatzen duen Araudiak, uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuaren bidez onetsiak, 79. artikuluan arautzen dituen funts kotizatuak eta kapital aldakorreko inbertsioko indize sozietate kotizatuak.

2. Atzerrian eratutako talde inbertsioko erakundeak, aurreko 1. zenbakian aipatutakoen antzekoak eta Zergaren Foru Arauaren 81. artikuluan aipatzen direnez bestelakoak, merkatu arautu batean nahiz negoziazio sistema aldeaniztun batean kotizatzen dutenak, edozein dela ere erreproduzitzen, errepikatzen edo erreferentziatzat hartzen duten indizearen osaera, baldin eta, gainera, itzulketa edo eskualdaketa ez bada egiten jurisdikzio ez-kooperatibotzat jotzen den herrialde edo lurralde batean dagoen merkatu batean."

3. artikulua. Aldatzea abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretua, finantza kontu, eragiketa eta aktiboen berri eman beharra arautzen duena.

Abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretua, finantza kontu, eragiketa eta aktiboen berri eman beharra arautzen duena, aldatzen da, hain zuzen ere 27. artikuluaren 4. apartatuaren a) letraren 1.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

zenbakia, eta 4. apartatuari paragrafo bat eransten zaio amaieran (aldaketek 2024ko martxoaren 2tik aurrera sortuko dituzte ondorioak). Hona testu berriak:

"1. Erakundearen sozietate izena eta egoitza sozialaren helbidea."

"Halaber, "informazioa eman behar duten plataforma eragileek" apartatu honen b) eta c) letretan adierazten den informazioa emango diote "informazioa eman behar den saltzaileari", eta horretarako epealdia "saltzailea" "informazioa eman behar den saltzailetzat" jotzen den egutegiko urteko urtarrilaren 31n amaituko da"."

4. artikulua. 3/2024 Foru Dekretua aldatzea (3/2024 Foru Dekretua, otsailaren 27koa, zeinaren bidez onesten baita plataforma eragileek ematen duten informazioa modu automatikoan nahitaez trukatzean arreta egokiarekin jarduteko arauak eta prozedurak garatzea, eta aldatzen baitira urtarrilaren 25eko 3/2011 Foru Dekretua, azaroaren 3ko 35/2020 Foru Dekretua, abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretua eta uztailaren 8ko 71/2008 Foru Dekretua).

3/2024 Foru Dekretua aldatzen da (3/2024 Foru Dekretua, otsailaren 27koa, zeinaren bidez onesten baita plataforma eragileek ematen duten informazioa modu automatikoan nahitaez trukatzean arreta egokiarekin jarduteko arauak eta prozedurak garatzea, eta aldatzen baitira urtarrilaren 25eko 3/2011 Foru Dekretua, azaroaren 3ko 35/2020 Foru Dekretua, abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretua eta uztailaren 8ko 71/2008 Foru Dekretua), hain zuzen ere 5. artikuluaren 2. apartatua (aldaketak 2024ko martxoaren 2tik aurrera sortuko ditu ondorioak). Hona testu berria:

"2. Aurreko apartatuan xedatzen dena gorabehera, "informazioa eman behar duen plataforma eragileak" ez du edukiko zertan eskuratu 1.a) apartatuaren 2 - 5 bitarteko zenbakietan eta 1.b) apartatuaren 2 - 6 bitarteko zenbakietan adierazten den informazioa, baldin eta "saltzailea" nor den eta egoitza non daukan zehazteko Batasuneko estatu batek, Europar Batasunak, "jurisdikzio bazkide" batek edo ELGAk eskueran jarritako identifikazio zerbitzu baten bidez jasotako zuzeneko berrespena erabiltzen badu."

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa. Finantzaketa kontratuen egituraketan jarduten duten bitartekariekin formalizatutako kontratuen kopia aurkeztu beharra.

Sozietateen gaineko Zergaren Araudiaren 36 bis artikuluaren 1. apartatuaren bigarren paragrafoan eta 38 octies artikuluaren 1. apartatuaren bigarren paragrafoan ezartzen da finantzaketa kontratuen egituraketan jarduten duten bitartekariekin formalizatutako kontratuen kopia aurkeztu behar dela. Betebehar hori 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera sinatzen diren finantzaketa kontratuei soilik aplikatuko zaie.

Bigarrena. Aparteko epealdia 2025eko zergaldian pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztua hautatzeko eta hautapena ezeztatzeko, jarduera artistikoetan.

1. Aparteko kasuetan, foru dekretu honen 1. artikuluaren lehenengo apartatuaren 3. zenbakian txertatzen den 34 bis artikuluan aipatzen diren jarduera artistikoak egiten dituzten zergadunek zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztua hautatu nahi badute edo hautapen hori ezeztatu 2025. urterako (hautapena eta ezeztapena abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudiaren 29. artikuluaren 1. eta 2. apartatuetan eta 30. artikuluaren 2. apartatuan arautzen dira), pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren 2025eko autolikidazioan egin beharko dute, autolikidazioa epealdiaren barruan aurkeztuta.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

2. Xedapen iragankor honen 1. apartatuaren arabera egiten den hautapenak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudiaren 29. eta 30. artikuluetan ezartzen denari jarraikiz egiten denaren ondorio berak edukiko ditu.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, salbu eta ondorioak sortzeko data jakin bat esleituta duten manuak, eta, lan etekinei aplikatu beharreko atxikipen portzentajeei dagokienez, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera jasotako ordainsariei aplikatuko zaizkie.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abenduaren 23a

Diputatu nagusia
RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria
MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2025.12.29 07:19:56 Z